

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

DIRULAGUNTZA-HITZARMENA BERRIAK ELKARTEAREKIN

Aurrekariak

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzea eta, bide horretatik, elkarte babestea xede duen markoa adostu dute bi aldeek: Hernaniko Udalak eta Berriak elkarteak. Eta, marko horren baitan 4 urterako hitzarmena sinatu zuten 2023 urtean, 2023ko apirilaren 20an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko erabakiari jarraiki.

Testuinguru horretan, Berriak, Hernaniko Merkataritza eta Ostalarien Elkartearen asmoa da Hernaniko udalerria merkataritza, zerbitzu eta aisialdi gune gisa dinamizatzea, kontsumitzaileentzako erakargarri eginez eta zerbitzu pertsonalizatua emanez.

Hernaniko Udalak eta Berriak elkarteak 2024an bultzatutako hausnarketa estrategikoaren prozesuaren ondorioz hainbat alderdi eta lan egiteko moduetan aurrera egin da, koordinazio handiagoa ezarriz, sinergia handiagoa sortuz eta, batez ere, ekintza bateratuen eragin estrategikoa indartuz, aliatuen arteko ko-erakuntzaren ikuspegitik abiatuz. Prozesu horren baitan sortu zen *Hernanin*, *Hernaniko Plaza* proiektua nola kudeatuko den zehazteko beharra.

Bestalde, Berriak elkartearen trantsizio fase batean dago: batzarraren karguberritzea, langilegoaren erreleboa eta plan estrategiko berri baten lanketa.

Ondorioz, 2026 urtean, elkarteari babesa emateko eta trantsizio horretan laguntzeko, ohiko dirulaguntzari 10.000€ gehituko dizkio Udalak. Alde batetik, Merkataritza Km0 proiektua (*Hernanin*, *Hernaniko Plaza*) berplanteatu dezan. Eta, bestetik, proiektuaren gutxienezko kudeaketa eta dinamizazioa egin dezan.

Helburu horiek guztiak erdiesteko 2026 urteko jarduera-plana aurkeztu du Berriak elkarteak eta udalerrian antolatzen diren ekintzen partaidea egin nahi ditu hernaniar guztiak.

Era berean, 2025 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Berriak elkarteak.

Berriak elkartearen irabazi asmorik gabekoa da eta Hernanin dagoen merkataritza eta ostalaritza elkarte bakarra da. Merkataritza, ostalarien eta herriko zerbitzuen sektorearen ordezkaritzan aritzen da hauen interesak defendatuz. Horretarako lan-mahai eta foroetan parte hartzen du, banakako aholkularitza eta kudeaketa profesionala eskaintzen du, doako formakuntza programak sortu edo bideratzen ditu eta animazio eta dinamizazio ekintzak burutzen ditu, besteak beste.

Udal teknikariak txostena egin du.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko martxoaren 26ko bilkuran **AHO BATEZ** emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da **AHO BATEZ**

Lehena.- 2025 urteko justifikazioa ontzat ematea eta bigarren ordaiketa egitea (10.800,00 €)

Bigarrena.- Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzeko Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena berrestea, Berriak elkartearen alde eta dirulaguntzaren % 60 (16.200,00 €) aurrerapena gisa ordaintzea.

Hirugarrena.- Merkataritza Km0 proiektuaren trantsizio eta garapena egiteko eranskina ontzat

ematea eta lehen ordainketa egitea (6.000,00 €).

Kontusaila: 1 1520.481.01.431.00 2026 (4552)

Kreditua: 37.000,00 €

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoetxea
Behin-behineko udal idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 26an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

